



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA

OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Donostian, 2024ko urriaren 16an

Elizbarrutiko elizkide maiteok:

Elizbarrutiko gotzainaren erantzukizunik garrantzitsuenetako bat eliztarrak babestea da eta fededunen ongizatea ziurtatzea, batez ere Jesusek maiteen zituen haien ongizatea: pobre eta behartsuena, adin txikikoa, ezaguerara iristeko zailtasunak dituztenena edota zuzenbideak babestuak izateko eskubidea ematen dienena; Elizaren eginkizunaren berezko eta oinarrizko zatia da.

Adin txikikoak eta pertsona zaugarriak babeste alor honetan, elizbarrutiak duen baliabideetako bat honako hau da: Adin txikikoa babesteko elizbarruti arteko Bulegoa; Mikel Iraundegi jauna da Donostian horren arduradun. Bulego horren xedeetako bat honako hau da: prebentzio politikak garatzea, apaizei eta parroketako pastoralgileei prestakuntza eskainiz, baita kuriakoei eta elizbarrutian irakaskintzan ari direnei ere, aurrerantzean abusurik berriz gerta ez dadin.

Prebentziorako oinarrizko programa xumea prestatu nahi izan dugu Donostian. “Arduratz” deritza. Elizbarruti osora hedatzea nahi nuke. Azaroaren erditik aurrera hasiko gara programa hori eskaintzen eta hiru orduko ikastaroa izango da, Adin txikikoa babesteko Bulegoak prestatua, Familientzako Aholku Etxea delakoaren lankidetzaz. Egin beharreko edo galdagarri izango da denentzat eta ziurtagiria izango du.

Gai honi buruz batzuek nolabaiteko prestakuntza hartua duzuela jakinik ere, apaiz guztiek eta parroketako pastoralgileek, kuriakoei eta ikastetxeetakoek (aurrena elizbarrutiko ikastetxeetakoek eta ondoren eskola katoliko oroetakoek) ikastaro hau egitea nahi dut. Horrela, ziurtatu ahal izango dugu Gipuzkoako Eliza urrats zehatz eta egiazkoak egiten ari dela abusuen arazo horretan sakontzeko, abusu sexual nahiz bortxakeriazkoa gerta baledi nolako jokabide edo protokoloa izango dugun jakiteko, jarduera egokiak gizarteratzeko eta esparru gero eta seguruagoak eratzeke. Hori guztia honako hau ahaztu gabe: biktimei pastoralki zor diegun onarpena ematea, erreparazio osoa egitea, nozitu duten egoera aitortzea eta nahi lezaketen laguntza pertsonala, espirituala nahiz instituzionala eskaintzea.

Beharrezkoa da Elizan gertatu denagatik barkamena eskatzea, baina ez da nahikoa. Ezinbestekoa dugu etorkizunean abusurik izan ez dadin konprometitzea, eskura dituzkegun baliabideak erabiliz.

Neureak egiten ditut Frantzisko Aita Santuaren hitzak: «Behar-beharrezkoa da bihotzen etengabeko konbertsio sakona gertatzea, Elizan denok ukituko gaituzten ekintza zehatz eta eraginkorrekin batera. Horrela, norberaren santutasuna eta konpromiso morala baliagarri izango da Ebanjelioaren predikazioa sinesgarri egiteko eta Elizaren misioa eraginkor» (*Vos estis lux mundi*, 2023).

Besterik gabe, oititzean bat. *In Corde matris*.

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**

Donostiako Gotzaina